TXOSTENA.- BERRIZKO UDAL-HILERRIA ERABERRITU ETA EGOKITZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

INFORME - PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS PARTICULARES PARA REFORMA Y ADECUACION DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE BERRIZ

1. KONTRATU XEDEA

Kontratuaren xedea "**Berrizko udalerriko hilerria eraberritu eta egokitzeko"** obrak burutzea da "Berriz Arkitektoak" erredaktatutako proiektuaren arabera. Kontratu hori lote bakar gisa planteatzen da, lan espezifiko eta unitarioa delako eta eremu txikian egiten delako.

Espedientea: C15-T247

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato tiene por objeto la ejecución de las obras de **"Reforma y adecuación del cementerio municipal de Berriz"**, de acuerdo con el Proyecto redactado por Berriz Arkitektoak. Se plantea este contrato como un único lote al tratarse de un trabajo específico y unitario y que se desarrolla en un ámbito reducido.

Expediente: C15-T247

2. KONTRATAZIOAREN PREMIA ETA EFIZIENTZIA

Berrizko udal-hilerria, jatorriz, XIX. mendeko Bizkaiko arkitekturaren bereizgarri den arkupedun hilerriaren tipologiari dagokio. Oinplano angeluzuzena du eta 1.800,00 m2-ko azalera, gutxi gorabehera.

80ko hamarkadaren hasieran, ipar-ekialdeko fatxadan bermatzen den handitze bat egin zen, "U" formakoa, erdi lurperatutako erdiko espazio batekin eta metalezko egituraz estalitako perimetroko korridoreekin.

Gaur egun, udal-azpiegiturak hainbat patologia eta gabezia ditu, eta, ondorioz, premiazko esku-hartzea behar da patologiak ezabatzeko eta gabeziak zuzentzeko, udal-ekipamendua herritarrek eskatzen dituzten erabilera eta ohitura berrietara egokituz.

2. NECESIDAD Y EFICIENCIA DE LA CONTRATACION

El cementerio municipal de Berriz responde, en origen, a la tipología de cementerio porticado, característico de la arquitectura vizcaína del siglo XIX, con una planta rectangular y superficie, aproximada, de 1.800,00 m^2.

A principios de los 80, se realiza una ampliación que se apoya en la fachada nordeste, en forma de "U" con un espacio central semienterrado y pasillos perimetrales cubiertos con estructura metálica.

En la actualidad la infraestructura municipal sufre una serie de patologías y deficiencias que hacen necesaria una intervención urgente que elimine las patologías y corrija las deficiencias, adecuando el equipamiento municipal a los nuevos usos y costumbres que reclama la ciudadanía.

3. OBRAREN EZAUGARRIAK

Proiektatutako jarduketak, zenbait jarduketa egitea proposatzen du, udal-azpiegituran hautemandako patologiak ezabatzeko eta herritarren behar berrietara egokitzeko.

Horretarako, honako jarduera hauek egitea proposatzen da:

3. CARACTERISTICAS DE LA OBRA

La actuación proyectada plantea la realización de una serie de actuaciones encaminadas a eliminar las patologías detectadas en la infraestructura municipal y adecuarla a las nuevas necesidades de la ciudadanía.

Se propone para ello realizar las siguientes actuaciones:

FASE I		
F1.01	Finkapenak eta barruko zoladura	Asentamientos y pavimento interior
F1.02	Euri-urak	Pluviales
F1.03	Hezurtegi komun berria	Nuevo osario común
F1.04	Hezurtegi/kolunbario berriak egokitzea	Acondicionamiento nuevos osarios / columbarios
F1.05	Erraustegia	Ceniciario
F1.06	Hondarrak erauztea – Parterrak lorategietan jartzea.	Extracción restos – ajardinamiento parterres.
F1.07	Estalkiko iragazketak egokitzea.	Acondicionamiento filtraciones cubierta.
F1.08	Dagoen zuraren egituraren tratamendua.	Tratamiento estructura madera existente.
F1.09	Estalkiko iragazketak egokitzea.	Acondicionamiento cubierta control

FASE II		
F2.01	Sarrerako ateak	Puertas acceso
F2.02	Harlangaitz-hormak tratatzea	Tratamiento muros mampostería
F2.03	Zerbitzua egokitzea.	Acondicionamiento servicio.
F2.04	Kaperak egokitzea zeremonia/jantzien gelan	Acondicionamiento capillas en sala de ceremonias / vestuario
F2.05	Argiteria instalatzea	Instalación alumbrado
F2.06	Kanpoko urbanizazioa	Urbanización exterior
F2.07	Hilerriko zoladurak konpontzea	Reparación pavimentos cementerio

4. EGIKARITZE EPEA

Obrak burutzeko aurreikusitako epea, LAU HILABETEKOA da.

4. PLAZO DE EJECUCION

El plazo previsto para la ejecución de los trabajos será de CUATRO MESES.

5. LIZITATZAILEEN BALDINTZAK

Komenigarria litzateke, lizitatzaileek, honelako lanetan duten esperientzia egiaztatzea.

5. CONDICIONES DE LOS LICITADORES

Sería conveniente acreditar, por parte de los licitadores, algún tipo de experiencia en la realización de este tipo de trabajos.

6. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitaziorako aurrekontua: BOSTEHUN ETA ZORTZI MILA, ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (508.822,51 €) EURO, BEZ barne.

6. PRESUPUESTO DEL CONTRATO

El presupuesto base de licitación será: QUINIENTOS OCHO MIL OCHOCIENTOS VEINTIDOS EUROS CON CINCUENTA Y UN CENTIMOS (508.822,51 €) IVA incluido.

7. KONTRATU MOTA

Kontuan izanik obren zenbatekoa eta ezaugarriak obren esleipenerako PROZEDURA IREKIA erabiltzea proposatzen da, azaroaren 9ko 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratu legeak ezartzen duenaren arabera.

7. TIPO DE CONTRATO

Teniendo en cuenta el importe y características de los trabajos a realizar, se propone utilizar, para la adjudicación de las obras el PROCEDIMIENTO ABIERTO de conformidad con lo dispuesto en el artículo 156 de la Ley 9/2017, de 9 de noviembre de Contratos del Sector Público.

8. KONTRATU ALDAKETA

Sektore Publikoko kontratu legearen 205 artikuluan aurreikusitakoa beteko da eta aipatutako legearen 242.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu moldaketan obra unitate berriak sartuko balira, aldaketa horien prezioak Administrazioak jarriko ditu eta kontratistak onartzen ez badu, kontratazio organoak beste enpresa batzuekin kontratatu ditzake, finkatutako prezioetan, zuzenean eginez edo kontratua erabakiz Sektore Publikoaren kontratu legearen 211 artikulua jarraituz.

8. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

Se ajustaran a lo previsto en el artículo 205 de la Ley LCSP, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 242.2 de la citada Ley, cuando las modificaciones en el contrato supongan la introducción de nuevas unidades de obra no comprendidas en el mismo, los precios de dichas modificaciones serán los fijados por la Administración y en el caso de que el contratista no los acepte, el órgano de contratación podrá contratarlos con otro empresario en los precios que hubiese fijado, ejecutándolas directamente u optar por la resolución del contrato conforme al artículo 211 de la LCSP.

9. EZ PROPORTZIONALA

Eskaintza bat ez proportzionala dela ulertuko da, bideragarria ez denean eta aurkeztutako eskaintza ekonomikoen batez besteko aritmetikoaren %20 beherago dagoenean.

Ez proportzionalak diren eskaintzei, legearen 149 artikulua aplikatuko zaie.

9. DESPROPORCIONADA

Se entenderá que una oferta es desproporcionada por haber sido formulada en términos que la hacen inviable, cuando esté por debajo del 20% de la media aritmética de las ofertas económicas presentadas.

A las ofertas que hayan sido consideradas desproporcionadas se les aplicará lo dispuesto en el artículo 149 de la LCSP.

10. OBREN HARRERA ETA BERME EPEA

Obrak amaitu ondoren, harrerarako gehienezko epea, HILABETEKOA izango da.

Berme epea, azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratu 9/2017 legearen arabera, URTEBETEKOA izango da, obren harrera formala egiten denetik.

10. RECEPCION DE LAS OBRAS Y PLAZO DE GARANTIA

El plazo máximo para la recepción de las obras, una vez finalizadas de forma y manera adecuada, será de UN MES.

El plazo de garantía, de acuerdo con lo previsto en la Ley 9/2017, de fecha 8 de noviembre de Contratos del Sector Público, será de un AÑO, a contar desde la recepción formal de los trabajos.

11. ESLEIPENAREN IRIZPIDE TEKNIKOAK

Eskaintzen kalitate-prezio erlazioa zehazteko, eta 9/2017 legearen 131 artikuluak ezarritakoaren arabera, jasotako proposamenak baloratuko dira, irizpide hauen arabera:

11. CRITERIOS TECNICOS DE ADJUDICACION

Con el fin de determinar la mejor relación calidad – precio en las ofertas y, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 131 de la Ley 9/2017, se propone valorar las propuestas recibidas en base a los siguientes criterios:

MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK	CRITERIOS NO CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMATICA

OBRAREN AZTERKETA	30 puntura arte	ESTUDIO DE LA OBRA	Hasta 30 puntos

- **Obraren azterketa, egikaritu nahi den obraren zehaztapenetara egokituta egiten bada.**

  Horretarako lizitatzaileek, obraren memoria teknikoa aurkeztuko dute, ezaugarri hauekin:

  - ✓ Gehienezko luzapena: 20 orria, A-4 tamaina, aurpegi batean idatzita eta gutxieneko letra mota 10.
  - ✓ Obraren planning: memoriari obra plan bat atxikitzeko aukera dago, A-3 tamainako orri batean.

  Ezarritakoa baino azterketa gehiago aurkezten duten eskaintzek, 0,5 puntuko penalizazioa izango dute, aparte egiten den orri bakoitzeko, gehienez ere **10 puntu.**

- **Obra azterketa baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:**

  A) PROIEKTUAREN AZTERKETA ZEHATZA Puntu honetan, proiektuaren ezaugarri nabarmenenak deskribatuko dira eta egikaritzeko proposatutako garapena.

  (Edozein jardueretan aplikatu daitekeen deskribapen generikoa 0 puntutan baloratuko da).

- **Se valora el Estudio de la Obra siempre que se realice de manera determinada a la obra que se pretende ejecutar.**

  Podrán para ello aportar los licitadores una Memoria Técnica de la Obra que deberá ajustarse a las siguientes características:

  - ✓ Extensión máxima: 20 páginas, tamaño A-4, escrito a una cara y tamaño mínimo de letra 10.
  - ✓ Planning de obra: Podrá añadirse a la memoria un planning de obra de una hoja de tamaño máximo A-3.

  Las ofertas que incluyan estudios superiores a lo establecido tendrán una penalización de 0,5 puntos por página de exceso, hasta un máximo de **10 PUNTOS.**

- **Para la valoración del Estudio de Obra se tendrán en cuenta los siguientes criterios:**

  A) ESTUDIO DETALLADO DEL PROYECTO.
  Se atenderá, en este punto, a describir los aspectos más relevantes y específicos del Proyecto y el desarrollo propuesto para su ejecución.
  (Las descripciones genéricas aplicables a cualquier actuación ser valorarán en 0 puntos.)

Atal hau gehienez ere **10 PUNTUTAN** baloratuko da.

Se valorará este apartado hasta un máximo de **10 PUNTOS.**

B) BURUTUKO DIREN LANEN ANALISIA ETA PROZEDURAK

Atal honetan, gauzatuko diren lanak, egon daitezkeen zailtasunak, bitartekoak eta aurreikusitako prozedurak aztertuko dira, eta lanak egin bitartean, zerbitzua mantendu ahal izateko hartuko diren neurriak.

B) ANÁLISIS DE LAS LABORES A EJECUTAR Y PROCEDIMIENTOS.

Se analizará, en este apartado, las labores a ejecutar, las dificultades que ofrece su realización y los medios y procedimientos previstos para su ejecución y las medidas que se adoptarán para posibilitar el mantenimiento del servicio durante la ejecución de los trabajos.

Atal hau, gehienez ere **10 puntutan** baloratuko da.

Se valorará este apartado hasta un máximo de **10 PUNTOS**.

C) SARBIDE AZTERKETA

Sekzio honetan, obrak burutzeko erabilitako sarbideak aztertuko dira eta hartu beharreko neurriak, gainerako erabiltzaileen sarbide erabilera bermatzeko.

(Bitarteko eta prozeduretako deskribapen generikoak, 0 puntutan baloratuko dira).

C) ESTUDIO DE ACCESOS

Se recogerán en esta sección, el examen de los accesos utilizados para la ejecución de las obras y las cautelas a adoptar para garantizar el uso del vial de acceso con el resto de usuarios.

(Las descripciones genéricas de medios y procedimientos se valorarán con 0 puntos.)

Atal honek, gehienez ere **5 PUNTU** izango ditu.

Se valorará este apartado hasta un máximo de **5 PUNTOS.**

D) OBRA PLANNING

Kapitulu honetan, proposatutako epean aurreikusten den obren planifikazioa sartzen da. Planifikazioa, lizitatzaileak emandako bitarteko tekniko eta giza-bitartekoen arabera egiaztatuko da.

D) PLANNING DE OBRA.

Se incluirán en este capítulo la planificación prevista para la ejecución de las obras en el plazo propuesto. La planificación estará justificada en base a los medios técnicos y humanos aportados por el licitador y los rendimientos previstos para la obra.

(Egiaztatu ez diren obra planning-ak 0 punturekin baloratuko dira).

Atal honek gehienez ere **5 PUNTU** izango ditu.

Modu automatikoan kuantifikatu ezin diren irizpideak guztira: gehienez ere 30 puntu.

(Los planning de obra no justificados se valorarán con 0 puntos.)

Se valorará este apartado hasta un máximo de **5 PUNTOS.**

Total criterios no cuantificables de forma automática: HASTA 30 PUNTOS

MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEKOA

Sektore Publikoko kontratu 9/2017 legearen **124** artikuluak ezarritakoaren arabera, lehiaketako balorazio orokorrean onartzeko, lizitatzaileei modu automatikoan, kuantifikatu ezin diren irizpideetan, **gutxienez 15 puntu lortzea** eskatuko zaie.

UMBRAL MINIMO DE ACCION QUE DEBERA DE OBTENERSE EN LOS CRITERIOS NO CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMATICA

Conforme a lo dispuesto en el artículo **124** de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público. Para ser admitido en la valoración global del concurso, se exigirá que los licitadores hayan obtenido, en los criterios no cuantificables, de forma automática una **puntuación mínima de 15 puntos**.

MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK	**CRITERIOS CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMATICA**
FAKTORE EKONOMIKOA 55 puntura arte	**FACTOR ECONOMICO Hasta 55 puntos**
Puntuaziorik handiena, ekonomikoena den prezioari emango zaio.	Se otorgará la máxima puntuación al precio más económico.
Aurkeztutako bestelako eskaintzak, formula honen arabera baloratuko dira:	El resto de ofertas presentadas se valorarán conforme a la siguiente fórmula:
PO = MaxP x (Ob/Ov)	PO = MaxP x (Ob/Ov)
Horrela : PO – eskaintza puntuazioa MaxP – gehienezko puntuazioa Ob – eskaintzarik onena. Ov – Baloratuko den eskaintza.	Siendo: PO – Puntuación oferta MaxP – Puntuación Máxima Ob – Oferta más ventajosa Ov – Oferta a valorar

Ohikoak ez diren eskaintza baxuak aurkezten badira, 9/2017 legearen 149 artikuluan ezarritakoa beteko da.

En el caso de que se presenten ofertas anormalmente bajas, se actuará conforme a lo dispuesto en el artículo 149 de la Ley 9/2017.

HOBEKUNTZAK	15 puntura arte

MEJORAS	Hasta 15 puntos

Proiektatutako jarduketak, hilerriaren barrualdea eta sarbide nagusiak konpontzea eta egokitzea aurreikusten du. Kanpoan utzi dira sarrera nagusian dagoen plazatxoaren urbanizazioa eta hil barrutia mugatzen duten harri-hormetan egin nahi diren jarduketa batzuk.

La actuación proyectada contempla la reparación y adecuación del interior del cementerio y accesos principales. Dejando fuera una serie de actuaciones que se pretenden realizar en los muros de mampostería que limitan el recinto funerario y la urbanización de la plazoleta existente en el acceso principal.

Horretarako, hobekuntza-eranskin bat egin da, eta, bertan, lan osagarri batzuk deskribatu eta baloratu dira. Lan horiek egitea komeni da, baina ezin izan dira Egikaritze Proiektuan sartu.

Se ha realizado para ello un anexo de mejoras en el que se describen y valoran una serie de trabajos complementarios que sería conveniente realizar y no han podido incluirse en el Proyecto de Ejecución.

Azaldutako guztiaren arabera, baldintza-agiri honetan xedatutakoaren ondorioetarako, dokumentu honen I. eranskinean deskribatutako partidak baino ez dira hobekuntzatzat hartuko.

De acuerdo con todo lo expuesto, únicamente tendrán la consideración de mejoras, a los efectos de lo dispuesto en el presente Pliego de Condiciones, las partidas descritas en el Anexo I del presente documento.

Hobekuntza-lanak baloratzeko, I. eranskinean ezarritako neurketak eta unitate-prezioak hartuko dira kontuan.

Para la valoración de los trabajos de mejora se atenderá a las mediciones y precios unitarios establecidos en el citado Anexo I.

Ikusirik lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak, gehieneko puntuazioarekin baloratuko da balorazio ekonomiko handiena duen hobekuntza-proposamena, eta gainerako proposamenei dagokien puntuazioa aplikatuko zaie, haien zenbateko ekonomikoaren proportzioan.

A la vista de las ofertas presentadas por los licitadores se procederá a valorar con la máxima puntuación la propuesta de mejoras con mayor valoración económica aplicando, al resto de propuestas, la puntuación que les corresponde en proporción al importe económico de las mismas.

Berrizen, 2021eko uztailaren 28an
UDAL ARKITEKTOA
Silvestre Berasategui Ortiz

SILVESTRE BERASATEGUI ORTIZ - 14562979T
Firmado digitalmente por SILVESTRE BERASATEGUI ORTIZ - 14562979T
Fecha: 2021.08.23 12:06:03 +02'00'